

# **Estatu kolpeari, Gerra Zibilari eta diktadura frankistari lotutako figurei emandako ohorezko hamar titulu errebokatu ditu Arabako Foru Aldundiak**

Erretiratutako ohoreen artean, Francori 1952an emandako Arabako Domina edo Camilo Alonso Vegak eta José Luis Arrese Magrak jasotako bi sariak nabarmentzen dira

**Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 3a.** Foru Gobernu Kontseiluak 1936 eta 1975 bitartean 1936ko estatu kolpearekin, Gerra Zibilarekin eta diktadura frankistaren errepresio aparatuarekin zuzenean lotutako figurei emandako hamar ohorezko sari errebokatzea onetsi du gaur. Neurri horrekin, Arabako Foru Aldundiak memoria publiko bateraturantz aurrera egiten du, egiaren, justiziaren, erreparazioaren eta berriz ez gertatzeko bermearen printzipioekin bat etorriz, bai eta balio demokratiko hauekin ere: elkartasuna, bizikidetzeta, aniztasun politikoa, giza eskubideen defentsa, bakearen kultura eta emakumeen eta gizonen berdintasuna.

Erretiratutako ohoreen artean, nabarmentzekoak dira Francisco Franco diktadoreari 1952an erregimena jada finkatuta zegoenean emandako Arabako Domina eta emandako sari bana Camilo Alonso Vega militarri -1936an Vitoria-Gasteizen errepresioan eta altxamenduan funtsezko figura izan zena- eta José Luis Arrese Magrari -erregimenaren ideologoetakoa-. Guztira, ohoreak erretiratuko zaizkie Bigarren Errepublikaren aurkako altxamenduari eta ondorengo diktadura erregimenari zuzenean lotutako zortzi figurari.

Erabakia Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoari buruzko 9/2023 Legea eta Memoria Demokratikoari buruzko Estatuko 20/2022 Legea betez hartu da. Lege horiek balio demokratikoekin bateraezinak diren aitortpenak kentzea sustatzen dute, altxamendua, gerra edo diktadura goraiatzeko dituztelako, edo errepresio frankistan parte hartzeagatik eman zaizkielako.

Azken hilabeteotan, Foru Aldundiak bere ohore erregistroa berrikusteko prozesu sistematiko bat garatu du. Horretarako, EHUko Historia Garaikideko irakasle Virginia López de Maturana historialariak egiaztatu du aitortpen horiek bateraezinak direla printzipio demokratikoekin, bai eta erregimen frankistaren botere egiturei eta diktaduraren legitimazio mekanismoei lotutako jatorria ere.

Akordioak azpimarratzen duenez, erregimen frankistaren testuinguruan, administrazio zuzenbidea atxikimendu politikorako tresna gisa erabili zen, eta Arabako Foru Aldundia ez zen dinamika horretatik kanpo geratu; izan ere, ohoreak Errepublikaren aurkako altxamenduan edo ondorengo errepresioan parte hartu zuten pertsoneri eman zitzaizkien.

Berdintasun, Euskara eta Gobernanzako foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak erabaki berean onartu du 1936ko uztailaren 18ko estatu kolpea eta ondorengo diktadura frankista

arbuiatu eta gaitzestea, gaur egun berriz ere gogor nabarmentzen diren ukapen, bazterketa eta intolerantzia diskurtsoei aurre eginez.

Hauek dira baliogabetutako ohorezko sariak:

- **Francisco Franco Bahamonde – Arabako domina urrezko kategorian (1952).** Estatu kolpearen militar burua eta diktadorea.
- **Camilo Alonso Vega – Arabako domina (1955) eta probintziako aita (1961).** Vitoria-Gasteizen altxamendua ziurtatu zuen errepresioaren giltzarri izan zen militarra, erregimen frankistaren errepresio puntakoetako bat izatera iritsi zen, Guardia Zibilaren zuzendari eta Gobernazio ministro gisa.
- **Lorenzo de Cura Lope – Arabako domina, urrezko kategorian (1961).** Arabako politikari karlista, erregimenaren aldekoa eta Arabako Foru Aldundiko presidentea.
- **Vicente Abreu Madariaga – Arabako domina (1942).** Militar arabarra, zeregin erabakigarria izan zuen Vitoria-Gasteizko altxamenduaren antolaketan. Arabako Foru Aldundiko presidente izan zen frankismoan, eta lurraldeko gobernadore militarra izan zen.
- **Enrique Uzquiano Leonard – Arabako Boluntarioen Domina (1942).** Militar arabarra, zeregin garrantzitsua izan zuen Valladolideko estatu kolpean.
- **José Luis Arrese Magra – Arabako Boluntarioen Domina (1944) eta Probintziako Adopziozko Semea (1944).** Politikari falangista, Malagako gobernadore zibila, Mugimenduko ministro idazkaria eta erregimeneko ideologoetako bat.
- **Germán Gil Yuste – Probintziako adopziozko semea (1938).** Altxamendua babestu zuen jenerala eta Arabako gobernadore zibila gerraren hasieran.
- **Luis Orgaz Yoldi – Arabako seme txit prestua (1939).** Militar arabarra, II. Errepublikaren aurkako estatu kolpe guztien figura garrantzitsua izan zen, eta Estatu Nagusi frankistaren burua.

Duela aste gutxi batzuk, Arabako Batzar Nagusiek onartu zuten 1936an Gerra Zibilean Francisco Francori emandako Probintziako Aita eta Ohorezko Diputatu Nagusi tituluak kentzea, eta Emilio Molari Probintziako Aita tituluak kentzea. Horrela, lurraldean ohore frankistak ezabatzeko erakunde mapa osatu zen.

## **Foru Aldundiak nekazaritza-ustiategiak modernizatzeko 3 milioi euro baino gehiagoko laguntzak onartu ditu**

Foru Gobernuaren Kontseiluak nekazaritza- eta basogintza-ustiategietan inbertsioak egiteko 2026ko laguntzen deialdia onartu du. Urte anitzeko kreditu-erreserba 3 milioi eurotik gorakoa da, lehen sektorea modernizatzeko eta ustiategien lehiakortasuna hobetzeko.

Eraginkortasuna irabazten, instalazioak eta ekipamenduak hobetzen eta ustiategien iraunkortasunean aurrera egiten laguntzen duten inbertsioak laguntzea da deialdiaren helburua, nekazaritza-jarduera indartsuagoa eta etorkizunerako prestatuagoa bultzatuz.

Gainera, deialdiak inbertsioak onartzeko epea aurreikusten du 2025eko martxoaren 15etik aurrera (baldin eta lehenago dirulaguntzarik jaso ez badute), eta aurreikusitako kasuetan laguntzaren ehuneko handitzeko aukera, % 10 gehituta 2026rako definitutako sektore estrategikoetako inbertsio espezifikoetarako (esnetarako behi-azienda profesionala, gutxienez 15 ume-hazle dituen haragi profesionaleko behi-azienda eta hazitarako patata).

## **Foru Aldundiak 1,5 milioi bideratu ditu Araban gazteak landan sar daitezen laguntzeko**

Foru Gobernuaren Kontseiluak nekazari gazteak ezartzeko 2026ko laguntzen deialdia onartu du, nekazaritza-proiektu berriak hastea errazteko eta Arabako lehen sektorean belaunaldien arteko erreleboa indartzeko.

Laguntza horiekin, Foru Aldundiak bilatzen du landa-eremuan sartzeko urratsa lehen egunetik bideragarriagoa izatea: enpresa-plana, hasierako inbertsioa eta etorkizuneko ustiapen bat abian jartzeko beharrezkoak diren gastuak diruz laguntzea.

Edizio honetarako, laguntzak, beste parametro batzuen artean, 300.000 euroko gehieneko inbertsio eta gastu baremagarriak, 50.000 euroko gehieneko dirulaguntza eta 10.000 euroko gutxieneko dirulaguntza aurreikusten ditu, ekoizpen-ereduaren irizpideei eta ustiategiaren ezaugarriei lotutako zenbatekoetz gain.

## **Foru Aldundiak udalerrietan energia jasangarritasun sustatzeko laguntzen deialdia egin du**

Gobernu Kontseiluak dirulaguntzen deialdi berri bat onetsi du, lurraldeko toki erakundeentzako energia jasangarritasuneko jarduerak bultzatzeko eta garatzeko.

Asmo horrekin, 350.000 euroko aurrekontua zuzendu da laguntza lerro horretako, zeinaren helburua baita udalerriek eta kontzejuek beren instalazio, eraikin eta ekipamendu publikoen energia efizientzia hobetzeko egiten dituzten inbertsioen kostuaren zati bat ordaintzea, eta haien beharrak asetzeko energia berriztagarria sortzeko sustapena egitea.

Esparru horretan, honako jarduketa hauek lagundu ahal izango dira diruz:

-Eraikin eta ekipamendu publikoen, ibilgailuen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioak egitea, kontsumoen kontrola, energia auditoretzak, energia efizientiaren ziurtagiriak, energia jarduketan planak, hiri mugikortasuneko planak edo klima aldaketara egokitzeko eta hura arintzeko beste plan batzuk egitea.

-Monitorizazio ekipoak, urruneko kontrol bidezko ordu programazioa eta antzeko baliabideak ezartzea, erakunde publikoek kontsumitzen duten energia benetako beharrianetara egokitzeko.

-Eguzki bidezko argiteria publikoko ekipamendua.

-Lanparak ordeztzea, argiteria publikoan eta toki erakundeen eraikinetan energia eraginkortasuna handitzeko.

-Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak eta ekipamenduak, bai sortze instalazioak, bai haiekin loturiko biltegiak instalazioak, energia eskari publikoari erantzuteko.

-Instalazioen bideragarritasun azterlanak eta proiektu teknikoak idaztea eguzki energia termikoa, fotovoltaikoa, minihidraulikoa, aerotermia eta etorkizunean gara daitezkeen beste energia batzuk aprobetxatzeko .

-Ibilgailu elektrikoak (erabilera publikorako diren bizikletak eta erakunde hartzailearen beraren ibilgailuak barne) kargatzeko puntuak instalatzea.

-Ibilgailu elektrikoak eskuratzea, bizikleta elektrikoak barne, erakunde publikoen titulartasun eta erabilerako flotetarako.

Diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoa % 85era arte igotzen da mota guztietan, 8. motan izan ezik (ibilgailu elektrikoak erostea), % 30ean mantentzen baita.

Jasangarritasuna laguntzen duen programa hori "KLIMA ARABA 2050" Arabako Lurralde Historikoko klima ekintzarako estrategiak proposatzen dituen ekintzen barruan kokatzen da. Aldundiaren estrategia horren helburua da klima aldaketa arintzeko eta klima aldaketara egokitzeko neurriak eta ekintzak abian jartzea eta karbono gutxiko eredu baterantz aurrera egiten laguntzea. Testuinguru honetan, lehenengo xedea da "Arabako eredu ekonomiko eta energetikoaren deskarbonizazioa", helburu horretarako eta lurraldeko toki erakundeei zuzendutako lan ildo baten bidez.

## **Foru Aldundiak Arabako ibai eta urtegietako arrantza kontinentalaren kudeaketa eta zaintza indartu ditu**

Foru Gobernuaren Kontseiluak onartu egin du Arabako Lurralde Historikoko ibai eta urtegietako arrain-eta astazikulta-aprobetxamendua planifikatu eta kudeatzeko laguntza teknikoko kontratua luzatzea, bai eta arrantza kontinental zainzeko eta zaintzeko kontratua ere.

Zerbitzu horren jarraitutasuna funtsezkoa da arrantza-jarduera ordenatu eta jasangarri bati eusteko, tokian bertan presentzia izanik eta ibai-ekosistemen jarraipen teknikoa eginda. Lanak plangintza eta kudeaketa kontrol- eta zaintza-lanekin konbinatzen ditu, funtsezko elementua baita baliabidea babesteko eta araudia betetzen laguntzeko.

Kontratua 2023an esleitu zen, bi urteko hasierako egikaritze-epearekin, eta 2023ko maiatzaren 1ean hasi zen. Orain onartutako akordioak beste urtebetez luzatzeko aukera ematen du, enpresa esleipendunak betebeharrak behar bezala betetzen dituela egiaztatu ondoren. Luzapena Consultora de Recursos Naturales SLren alde onartu da, 188.868,80 euroko kontsignazioarekin (BEZa barne), 2026ko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

## **Arabak benetako "laborategi" bat ireki du hiri inguruetan eta errepideetan mugikortasun eta logistika konponbideak probatzeko**

*Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala Mobility Lab Fundazioarekin elkarlanean arituko dira Innovation LAB abian jartzeko*

Foru Gobernuaren Kontseiluak Arabako Foru Aldundiaren, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Vitoria-Gasteiz Araba Mobility Lab Fundazioaren arteko Jarduera Protokolo Orokor bat sinatzea onartu du, "Innovation LAB: Esperimentazio Espazioak" delakoa hedatzea bultzatzeko.

Berrikuntza aplikatuan urrats bat gehiago emateko sortu da ekimena: ingurune erreal eta kontrolatuak sortzea — living labs, test beds edo sandboxak, esaterako —, non enpresek, zentro teknologikoez eta administrazioek ideia, produktu eta zerbitzu berriak probatu eta balidatu ahal izango dituzten eskala handian hedatu aurretik.

"Innovation LAB" a herritarren egunerokoan eta lurraldearen lehiakortasun ekonomikoan eragin handia duten eremuetara bideratzen da, hala nola garraio publiko adimendunera, ibilgailu konektatu eta autonomoetara, dronen erabilerara, logistikara edo bide-segurtasunera.

Protokoloak, gainera, laborategiak modu ordenatuan funtzionatzeko esparru bat finkatzen du: informazioa trukatzetik hasi eta prozedurak batera definitzeraino, baita proiektuen jarraipena egiteko gobernantza-eskema bat ere. Aldundiak eta Udalak testatze-jardueretarako erabil daitezkeen kokaleku, azpiegitura eta ekipamendu publikoak jarriko dituzte eskura, eta baimenak arintzeko lan egingo dute; Mobility Labek, berriz, esperimentazio-espazioen diseinua eta funtzionamendua gidatuko eta koordinatuko ditu.

Protokoloaren hasierako indarraldia lau urtekoa izango da, luzatzeko aukerarekin, eta ez dakar alderdien arteko konpromiso ekonomikorik, borondate komuna adierazten duen lankidetzatresna baita.

## **Arabako Foru Aldundiak 334.000 euro inbertituko ditu Erregistro Orokorraren jendearentzako zerbitzua eta irisgarritasuna hobetzeko**

Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailak 334.000 euro inbertituko ditu aurren, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorraren jendearentzako zerbitzua eta irisgarritasuna hobetzeko. Proiektuak bulego eta artxibo espazioa berrantolatzea barne hartzen du, langileen lan baldintzak hobetzeko.

Foru Gobernu Kontseiluak Probintzia plazan kokatuta dagoen Erregistro Orokorraren bulegoak eraberritzeko obrak lizitatu ditu gaur, 333.664 euroan, BEZa barne, eta bost hilabeteko epean burutzeko. Obrak uda baino lehen adjudikatuko dira eta, horrela, urtea amaitu aurretik bukatuta egongo dira.

Erregistro Orokorrak 240 metro koadro inguru hartzen ditu Bulego Tekniko Berrien beheko solairuan, baina espazioa oso zabala bada ere, zaharkituta dago: jendeari arreta emateko eremua bigarren planoan dago, artxiboa handiegia da eta komunek ez dituzte irisgarritasun arauak betetzen.

Arazo horiek konpontzeko xedearekin, espazioaren erreforma integrala egingo da, funtzionaltasun-, efizientzia- eta irisgarritasun-irizpideak betez.

Erreformatik administrazio arretaren ereduaren bilakaera hartuko du kontuan, herritarrei zuzendutako eremua eta barne erabilerako eremuak argi eta garbi bereizteko. Horrela, jendearen arretarako postuak sarbidetik gehien ikusten den eremuan kokatuko dira, orientazioa erraztuz eta zerbitzuaren pertzepzioa hobetuz.

Emaitza espazio egokia eta eroso izango da herritarrei harrera egiteko eta haiek zain egoteko, gurpil aulkien erabiltzaileentzat egokitutako arreta mahaiarekin; komunak erabat irisgarriak izango dira; eta azaleraren gainerakoa irekita egongo da, bulego bakar batekin, okupazioa optimizatuz.

Gainera, erosotasun akustikoa hobetze aldera, jendeari arreta emateko eremua bereizi ahal izango da ate lerragarria duen itxitura baten bidez, herritarrei arreta emateko ordu tartean barruko lan eremura sartzen den zarata murriztuz. Zarata xurgatzen duten sabaiak ere jarriko dira, espazioaren akustika hobetzeko.

Eraberritze proiektu hori foru zerbitzu publikoetan irisgarritasunaren eta inklusioaren arloan aurrera egiteko foru estrategiaren barruan dago. Hala, obrak amaitu ondoren, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailak hainbat jarduketa egingo ditu bulego horietan, itsuei, gorrei eta mugikortasun murriztua dutenei irisgarritasuna errazteko.

Besteak beste, honako hauek: eraikinaren foru zerbitzuei buruzko seinale berriak, irakurketa errazeko irizpideekin; eskudel berriak, mugikortasun urriko pertsonen sarbidea errazteko; orientazio podotaktileko sistema bat barrualdean, ikusmen desgaitasuna duten pertsonentzat, NaviLens kodeekin lagunduta, eta zeinu hizkuntzako interpretearen online zerbitzu bat.

Esku hartze horiek ONCE, Begisare eta Itxaropena ikusmen urriko pertsonen elkarteekin lankidetzan zehaztu dira.